

GIPUTXIEN BATZARREA (85-11-9)

Mutriku, Deba, Oitzun, Donostia, Pasaia, Andoain, Tolosa eta Zarautzko jendea bildu ginen.

Informazioa

Puntuak aztertzen hasi baino lehen, Iraunkorrek egindakoari buruzko informazioa eman genuen:

Hiru izan ziren nagusiki udaran landutako eginbeharrak: euskara talde guztien arteko koordinazioa bultzatu, formaziorako mintegia antolatu eta administrazio kanpaina aurrera eramanez.

Koordinaziorako urratsak eman ditugu eta, gure ustez, lortzen ari gara; gainera, koordinazio hori lortzeko eta taldea indartzeko garrantzitsua izan daitekeen "aurrera!" aldizkiritxo argitaratu dugu eta, ahal bada, hilero argitaratuko dugu.

Formaziorako mintegia aurrera ateratzen arduratuko den pertsona badago eta honetaz beherago hitzegingo dugu.

Administrazio kanpaina nahiko prestatua daukagu, baina, arazo koiunturalengatik (arazo larriagoei erantzun behar: ETB, autopista..) ezin izan dugu martxan jarri. Maila honetan egiten ari garena abogatuekin kontaktatzea da; dagoneko Bergar eta Bilboko abogatuekin hitzegin dugu eta denuntzi modelo bat ere badugu.

ETBko arazoa sortu zenean buru-belarri sartu ginen berarekin. Hasierako gure helburua izan zen arazoa kaleratzea kristo guztia enteratu zedin arrisku horretaz eta ETBkoei jakin arazi erne gaudela eta ez dugula hori onartuko. Komunikatuak atera, Gorordori elkarrizketa eskatu, panfletoak banatu, pankartak, artikuloak eta prentsaurreko bat. Pentsatzen dugu jarritako helburuak bete ditugula; frogak: EAJ eta ETB-k ateratako notak eta elkarrizketatzeko bi irratietatik egindako deliak.

Bestalde, badugu autopistan gertatutako beste arazo bat. Taldeko batek peajearen erreklamazio liburua eskatu eta, eman beharrean, bronka. Hertzainak etorri eta Durangoko basera eramanez zuten eta azkenean multa. Guztira 5 ordu. Honekin eta gertatutako beste kasuekin (Erramun eta Martin) datorren ostiralean prentsaurreko bat emango dugu. Horretaz gain pentsatu dugu Hertzainei denuntzi bat jartzea eta autopistan ekintza bat egitea. Ekintza hori litzateke dozena bat kotxeekin peajera joan eta kabina guztietan erreklamazio liburua eskatzea, gero ordaindu gabe aldegin.

Taldean aspaldian erabaki zen langile munduan zerbait egitea eta Anajek txostentxo bat ere egin zuen; baina horretaz aparte, bapez. Orain, EKB-k ere mundu hori landu nahian dabilela, dagoeneko hasi gara zenbait sindikatoekin kontaktatzen.

### ETB

Informazio garrantzitsu berri bat eduki arte ez dugu taktikaz aldatuko, jarraituko dugu erne eta arazoa artikulo etabarren bidez kaleratzen. Egin daitekeena, bai, zera da: ekintza positibo eta deigarriak (erretransmisio batetan pankarta bat jarri...) Baita ere etxe komertzialekin sartzeko posibilitatea komentatzen da.

Horretaz gain, EKB-k beste bi ekintza bultzatzera doa: alde batek erakundeen (elkarte, euskaltegi, ikastola...) posizionamendua eskatuko du firmen bidez; bestalde, AEK-k bere ekinbide antidiglosikoren barrun antolatzen duan Mural Egunean parte hartuko dugu. Horrela aprobetxatuko dugu txartel, mural, pankarten bidez telebistaren arazoa kaleratzeko.

### aurrera!

Aldizkaritxoaren azterketa edo kritika txiki bat egin genuen eta orokorki agertutako iritzia ezan zen proiektu honekin jarraitzea pena merezi zuela. Hobetzeko komentatu zen:

- Banaketa zuzenean herri guztietara egin beharrean, bailaratara eramana eta handikan herrietara.
- Komenigarri litzateke bailara bakoitzako telefono bat jartzea.
- Posible balitz, herri bakoitzean liburudenda batetara eramatea ondo egongo litzateke.
- Zenbait elkarteetara ale batzuk dohainik banatu.
- Herrietako informazioa hobetu egin behar da.
- Amando banaketaz arduratuko da.

### Mintegia

Jakingo duzuen bezala mintegiak bi helburu dauzka: gure jendea hezi eta soziolinguistikari buruzko informazioa kaleratu. Proiektua bultzatzeko Zarautzko Koldo arduratuko da.

### Nafarroako legea

Honi buruzko informazioa aparte doakizue.

### Beste

- Abenduaren 1-an Argia eguna. Prest egon laguntzeko.
- Bilera honetara talde guztiei konbidatu genizuen eta EHE ez diren Andoain eta Oiartzun agertu ziren. Hauekin komentatzen interesantea iruditu zitzaion eta hemendik aurrera deialdi eta aktak talde guztiei banatuko zaizue. Ia benetazko koordinazio lortzen dugun.

OKERRAK ZUZENDU ETA ABISAU



**EUSKAL HERRIAN**

Euskal Herrian Euskaraz osatzen duten taldeek daukaten autonomia k ntutan harturik, eta azken garai honetan, nazio mailan erakunde sendo bat bezala koordinatzeko egon diren arazoengatik, askotan gertatzen da herri bateko talde batek ez dakiela beste herri batean zer egin den, edo zer egiten duten.

Horrezaz gain, zenbait taldek, eta talde berriek batezere, behin baino gehiagotan galdetzen dute ea zer egim daitekeen herri mailan.

Ez bakarrik zer egin, taldea nola eratu eta nola funtzionarzi ere bai.

Galdera hauek direla eta, eta norbaiti baliozgarri gertatuko zaiolakoan, zenbait herritako taldeen antolaketa-eginkizunen laburpen bat prestatu dugu. Egia esan oso laburrak dira laburpenak eta ez dituzte herri mota guztiak harrapatzen.

EHE edo "Euskara Talde" ezberdin batzuk aukeratu ditugu eredu modura. Hori besterik ez da izan laburpen hauetan jaso duguna. Edoizen taldek nahi izanez gero, jakin beza talde hauen esperientzietan buruzko txosten osoak daudela eta edozein momentutan bana daitezkeela. Nahi duenak eskatzea dauka.

Herri bakoitzeko ekinbidea herri bakoitzeko taldeak bilatu behar duen arren, oso interesgarria izango zaigu globalizazi moduko bat egitea, eta gutxienez, azken urte hauetan eman diren prozesu ezberdin batzuk baloratzea.

Lan hau egiteko faktore batzuk eduki beharko genituzke kontutan:

- Taldearen dinamikotasuna
- Herri auzo horren ezaugarriak: biztanle kopurua, industria giroko ala nekazal girokoa, euskararen egoera (zonalde erdalduna, euskaldu hiritartua ala ukipenezkoa).
- Udaletxearen jarrera, eta prozesuan udaletxe-EHE taldearen artean eman den prozesua.

Beharrezko ikusten dugu faktore guzti hauek toki bakoitzean nahiko garbi ikustea EHE taldeak nazio mailan euskararekiko estratejia bat markatzeko orduan, gero estratejia horren arauera lehentasunak eta erabakitzen joateko. Saiatu behar dugu, alde batetik "gertatu" tako erasoan atzetik ibili beharrean horiei aurrea hartzen, eta bestetik, kanpañak eta egiteko orduan "burura datorkigun lehena" egin beharrean gehien komeni dena egitea.

Laburpen hauetan ikusi ahal izango duzuen bezala:

1. Talde zabalak... (AED, Legazpikoa...)
2. Talde txiki "salatzaile"ak
3. Erakunde (Udala) baten babesean dagoen taldea

hiru mota hauek agertzen dira gutxienez. Bilatuz gero gehiago ere agertuko dira. Seguru.

## ORERETA

Taldea euskaltegiko ikasle eta beste herritar batzuen inguruan sortu zen. Srtu eta gure lehenengo ardura dirua lortzea izan zen; horretarako, EHEko nazionaletik 15000 pztako prestamo bat jaso eta 1000 pztako kuota bat jarri genuen (badaude ordaindu eta lana egiten dutenak, ordaindu ezin eta lana egiten dutenak eta bakarrik ordaintzen dutenak).

Berehala pintada batzuk egiten hasi ginen, mural antzekoak, eta horretarako leku aproposenak ikastola inguruan eta erdi aldean iruditu zitzaizkigun; hauetan jendeari euskara ikastea eta alfabetatzea eskatzen genion. Donostiako kilometroak garaian pribatizazioari buruzko beste pintada bat egin genuen bide nagusian.

Gauzatxo puntual horiek egin bitartean gauza "serioagoak" ere jarri genituen martxan: udaletxeko euskara batzordean parte hartzen eta hango dinamika inposatzen hasi ginen. Momentu horietan hainbat euzoko tipo majo batzurekin harremanetan jarri ginen haurrentzako gau edo arratsalde eskolak montatzeko. Gabonak pasa ondoren klaseei hasiera eman zitzaien auzo batzuetan; gure asmoetan hori lortzea zen inportanteena, horrela hurrengo ikasturterako esperientzia zabaltzea eta sendotzea posible bait zen. Martxan jarraitzen dute klaseak, baina dirua kobratzeko nahiko borroka izan ondoren eta nahiko lokala kaxkarretan.

Esan behar da euskara batzordean gu gurela dinamitzailerak bakarrik. Batzorde horretatik lan serio bat egiten hasteko, beharrezkotzat eman genuen non eta nola gauden jakitea, horregatik inkesta soziolinguistiko bat egitea eskatu genuen, onartu bazen ere ez da egin eta ez dago egiteko asmorik.

Geroago ETBn erdara sartzea saiatzearekin topatu ginen, kanpaina lantzeko mural polit bat egin genuen eta telebista zaharrak jarri bagatiketxeko pertsianetatik zintzilik, kabinen gainean,...

Aberri egunerako beste mural bat egin genuen eta kartel beltz batzuk; lehenengo aldiz jarri genituen hauetariko batzuk telefono kabinetako kristal tartean (ordurako bagenuen infraestruktura dezente bat).

Lanak serioak eta politikak egiteko, aurrez ongi aztertzen dugu zer egin eta nola, eta ondoren prestaketak egiten ditugu gauzak txukun galdi daitezten. Horrela, pixkanaka, "bide eman" guztiak eta bus eta topoko plakak margotu genituen.

Gure azken lan Iparraleari buruzko hamabostaldi bat izan da.

Dirua ateratzeko ere gabonetan liburu eta disken azoka antolatzen dugu, horrek ordu asko eskatzen ditu, baina diru pixka bat atera daiteke.

## ARRASATE

Arrasate Euskaldun Dezagun "Euskara eta euskal kultura indartzeko" sortzen da duela pare bat urte, zenbait euskaltzaleen bultzadaz.

Aurretik egondako esperientziek oso erresultadu ona eman ez zutelako eta herrian eragin haundiagoa lortu nahiean, erakunde zabal bat sortzeko asmoa kaleratzen da.

Elkarte honetan tendentzia guztietako jendea biltzen da, jadanik 400 bazkide baino gehiago direlarik.

Bazkide izateko euskara maila minimo bat izan behar da, hileroko kuota ordaindu behar dute -200 pta.- eta bakoitzak ahal duen neurrian bere burua euskararen aldeko lanetarako eskeintzen du.

Une honetan taldeak ere liberatu bat dauka egun erdiz lanean.

Euskaltokia ere inauguratu dute, 3 gela haundi eta ederrez (Udalak emana) A.E.D.k era guztietako ekintzak antolatu ditu Arrasaten: Kultur Asteak, Mahai-inguruak, kontzientziazio-kanpainak, berriketari-txapelketaK, denetako kanpainak, etab.

Bere burua, kuotekin, Udalaren laguntzarekin eta lortzen dituzten beste diru batzuekin autofinantziazten dute, iaz 2.200.000 pta. baino gehiagoko gastuak izan zituztelarik.

Kuriosoa izanik ere, Udalak horrelako herri-mugimendua aurrean izanik, ez ditu onartu orain arte A.E.D. eskatutako Euskara Batzorde eta Zerbitzuak, Udalak, bere eginbeharrak taldearengain jaurtikitzen dituelarik.

Beren bidea horrela definitzen dute: "Herri-mobilizazio iraunkorra, gizarte kontzientziazio sakona lortzea. Eta honetarakoxe sortu da AED Elkartea. Jendea biltzeko; lan egiteko, mentalizazio-lana batipat; behar diren neurriak eskatu, exijitu eta presio egiteko, etab."

Lanean hasi berriak direlarik Arrasate bezalako herri konfliktibo batetan (El Ferial, txerriaren kartela, etab.) horrelako herri-mugimendu zabal eta haundi batek zein indar eta jokabide hartuko dituen ikuskizun dago, oso interesgarria gertatuko delarik.

## TOLOSA

Tolosaldean Birreuskalduntzeko Elkartea duela 6 urte jaio zen Tolosaldean euskarak jasaten zuen egoerari erantzun bat eman nahirik.

Hasera batetan talde zabala osatzeko zenbait urrats eman baziren ere, pro-  
posatutako jendeak atzera egin zuen, talde koxkor bat gelditu zelarik lan  
guztia aurrera eramateko. Talde honetan bildutako jendea pnvtik ezkerata  
zegoen jendeak osatu zuen.

Gero, kanpainetarako jendea behar zenean, -inkesta soziolinguistikoa izan  
zen lehen masiboa- era guztietako jendea biltzen zen, baina pnvko ageriko  
jendea ez da sekula talde honetan busti.

Birreuskalduntze taldeahasera batetik eskualde guztirako sortu bazen ere,  
nekeza gertatu da Tolosaldeko 24 herriak koordinatzea, beti arazoak izan  
direlarik herri guztietan jendea izateko.

Jendea biltzeko, taldeak bere ekintza masiboak aurkeztu egon ohi ditu  
- publikoki, ikastetxeetan, euskaltegian, etab.- eta hortik beti lortu  
izan da lanerako behar zen jendea.

Duela lau urtetik erdiliberatu batek eraman du lanaren zama nagusia. Libe-  
ratua egoteak zenbait lan errazten bazituen ere, bestalde, taldea inakti-  
boagoa bihurtu zen. Garai honetan Udalarekin harreman haundiak izan dira.  
Aparteko ekintza propioak ere antolatzen ziren Lizardi Elkarteak eskein-  
tzen zuen azpiegitura aprobetxatuz. Maila honetan baieztatu daiteke oinarri  
sozial zabal samarra mugitu izan dela taldearen inguruan, baina gehien  
failatu duena motorra izan behar zuen taldea izan dela.

Birreuskalduntze Elkartearen partaiderik sartuenak Udaletxeko Euskara Batzo-  
dean sartzea nahikoa izan zen taldea ia desegitera joateko.

Une honetan taldea birregituratzen ari da, jada zenbait ekintzen inguruan  
jendea bildu duelarik.

Ekonomi arazotan, orain arteko laguntzailea Udala bazen ere -bere laguntze-  
kin funtzionatu zuen taldeak- hemendik aurrera dirua ez duela emango aitor-  
tu duenez, taldeak zenbait ekintza prestatu ditu bere burua autofinantziatze  
ko.